

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Tokiko Gobernu Batzarra. Ohiko bilkurak egiteko ordua aldatzea**

Ikusi da Toki Araubide Oinarriak arautzeko Legearen 23, 2. eta 86. artikuluetan eta Tokiko Gobernu Batzarraren osaera, eskuduntzak eta ohiko bilkurak arautzeko erregelamenduko 32., 42. eta 43. artikuluetan xedatua.

Kontuan hartu da 2019ko uztailaren 1eko 1611 Dekretua, Tokiko Gobernu Batzarra eratzen duena, alkate-udalburuari eskuordetutako eskumenak eta ohiko bilkurak egiteko eguna eta ordua barne hartuta. Dekretu horretan berariaz adierazten da ondoko honako hauxe:

**BOSGARRENA.** Tokiko Gobernu Batzarra astero bilduko da, eta bilerak ostiraletan egingo dira, 9:00etan.

Familia kontziliazioaren ondoriozko beharrak ikusita eta tokiko gobernu-batzar horretako kide guztien ekarpenak kontuan hartuta, beharrezkoa da batzarra egiteko ordua aldatzea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

#### EBATZI DU

Lehenengoa. Aldatzea Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkurak egiteko orduari buruzko puntua. Bilkura horiek egiteko ordua Tokiko Gobernu Batzarra eratu eta haren funtzionamendua arautzen duen 2019ko uztailaren 1eko 1611 Dekretuaren bosgarren puntuan finakati eta ezarri zen.

Horrela, 2021eko irailaren 13tik aurrera, Tokiko Gobernu Batzarraren ohiko bilkurak ostiraletan egingo dira, 9:15ean.

Ebazpen honek familia-kontziliazioaren ondoriozko beharrak eragiten ditu, eta Tokiko Gobernu Batzorde horretako kide guztien ekarpenak kontuan hartzen ditu.

Bigarrena. Tokiko Gobernu Batzarra eratzen duen 2019ko uztailaren 1eko 1611 Dekretuari eustea, alkate-udalburuari eskuordetutako eskumenak eta ohiko bilkurak egiteko eguna eta ordua barne, ebazpen honek eragiten ez dion guztian.

Hirugarrena. Argitaratzea erabaki hau ALHAOn, Udal Antolamenduko Erregelamenduko 33, 2 eta Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiko 53, 3 artikuluetan xedatua betez.

Laugarrena. Jakinaraztea erabaki hau interesdunei, udal-talde politikoetako eledunei, udal-arloei, eta horren berri ematea Udalbatzaren Osoko Bilkurari, egingo den lehenengo bilkuran.

Laudion, 2021eko irailaren 15ean

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**